

Getxo >MEETING<

**Getxo MEETING abenduaren 14an:
Urtea laburbilduz... Gogoz hartu 2018a!**



Getxo Meetingeko saio honekin amaiera emango diogu 2017ko denboraldiari. Hamabostean behingo topaketek harremanetan jarri dituzte pertsona ekintzaileak eta enpresak esperientziak partekatzeko, sinergiak sortzeko eta etorkizuneko lankidetzak eratzeko. Topaketa horiek, hain zuzen, amaiera emango diote denboraldi honi eta ongietorria urte berriari.

Bertaratutakoen proiektuak aurkeztu ostean, 2017ko atzerako begirada egiten hasi gara.

Sarri ez dugu pentsatu ere egiten urte osoan zehar irabazi dugun guztia. Garrantzitsua da hausnartzea eta bidean eskuratutako irakaspen, mugarri eta helburuen jakitun izatea; horrela, errealitaterako egokiagoa den estrategia bat planifikatu ahal izango baitugu, baita gure etorkizuneko xedeak birplanteatu ere.

Parte-hartzaileek, alde profesionalen ez ezik, emozionalki eskuratu dituzten irakaspenak azaldu dituzte, eta oso positibotzat jo duten introspekzio-lan interesgarria egin dute.

Balorazioaren ostean, datorren urteko plangintzari heldu diogu. Proiektu orok 2018. urtean bete beharreko xedeak edo erronkak ekarri ditu. Horietako batzuk ekintza zehatzei daude lotuta, hala nola zeregin komertzialari edo helburu diren bezeroak berriz zehazteari lotuta. Beste pertsona batzuek, berriz, burutu beharreko proiektu berriekin zerikusia duten helburuak aurkeztu dituzte; hala, oraindik gauzatu ez diren iraganeko ideiak burutu nahi dituzte.

Kafearen atsedenaldirian topaketa horien alderdirik interesgarrienak partekatu ditugu, aurreko kasuei buruz jarraitu dugu hizketan eta beste proiektu batzuetarako ideiak aurkeztu ditugu modu informala goan.

Hurrengo bilera 2018ko urtarrilaren 18an izango da, eguerdian. Izena eman nahi izanez gero:

Mezu bat bidal dezakezu getxolan@getxo.eus helbide elektronikora.

Edo, bestela, 944660140 telefono-zenbakira deitu.

Nahiago baduzu, bulegora ere bertaratu zaitezke (Getxo Elkartegia; Ogoño kalea, 1, Areetan).

Urte Berri On!